



IRUNGO EMAKUMEAK PLAZARA

DOLORES SALIS MARTINEZ

Irun 1986 - 1999

Nor zen:

Eskulturagile eta esmaltean aritua eta aditua izateaz gainera, idazlea ere izan zen Dolores Salis.

Hala ere, Historiara Luís Rodríguez Gal “Luís de Uranzu” idazle famatuaren emazte eta Luís Salís Irungo azken alkate errepublikarraren arreba gisa igaro da.

1989 urtean jaio zen Dolores, gertukoentzat Lolita. Beraun etxe ederrean jaio eta bizi izan zen bere bizitzako zati handienera. Ia ezkutuan irauten duen altxorra da Beraun. Garai batean Iparralde hiribidea, eta Santago kale arteko lur eremu osoa zen euren etxea, horregatik gaur egun auzo horrek ere Beraun du izena.. Garai batean errota, sagardotegia edota ontziralekua zeukan etxeak.

Bere aita, Jose Salis, margolari famatuaren obra artean hazi zen Dolores. Salis familia belaunaldi bat lehenago etorri zen Irunera, Paseo Colon berrituko zuen Remy Salis arkitektoaren eskutik.

Familiako alaba bakarra zen eta bere anaiek ingeniari itza ikasketak egin zituzten bitartean, neska izateagatik Doloresi musika eta etxeko anderea izaten erakutsi zioten bakarrik. Ikasketak ezak ez zuen kikildu eta langile porrokatu izanik, bere kaxa ikasi zuen. Hasiera batean eskultura aritu zen, harri gogorreko blokeak zuzenean zintzelez eta mazoz landuz, baina urteak pasata indarra galtzen hasi zen eta eskulturaren ordean esmaltearekin hasi zen. Berandu arte aritu zen lanean eta obra garrantzitsuak egin eta arrakastaz erakutsi zituen hainbat hiritan. Irungo liburutegi berrira zoaztenean ikusi bere senarrari eskainitako bustoa! Luís Rodríguez Gal “Luís de Uranzu” idazle famatuarekin maitemindu eta elkarrekin igaro zuten bizitza ia osoa. Bost seme-alaben guraso ziren eta zoriontsu bizi ziren Beraunen.

Hiru hilabete eskasengatik ez zituen hiru mende ezagutu, baina bere begiek, oster, hiru gerra ezagutu zituzten. Horietako batek, 1936ko gerrak, erabat eraldatuko zion bizitza.

Beste irundar askoren kasuan bezalaxe, gerrak Bidasoa ibaiaren beste aldera joateara behartu zituen. Gerra amaitu zenean, Beraun etxea frankistek okupatua aurkitu zuten eta sotoan bizi behar izan zuten zazpiek. Seme alabek, baina, beraien gurasoak, Dolores eta Luis bet irribarre batekin gogoratzen dituzte eta pasatakoak pasata ere bet liburuetako abentura bat bizitzen ari zirela uste zuten.

Laurogei urte inguru zituela ikusmena galtzen hasi zen Dolores. Kataratetatik operatu zuten eta horren ondoren zehaztasun handia behar duen esmalte-lana utzi egin behar izan zuen. Letra handiko “Olivet” batekin ekin zion bere azken arte-abenturari. Ia bere heriotza bitarte jardun zuen idazten eta ezaguna den “Exilios” liburu idatzi zuen.

Non topatu dezakezu:

[Paseo interaktiboak](#)

[Irungo emakumeak plazara dokumentala](#)

Parean elkarrekin eta Gipuzkoako Foru aldundia

